


- 2003tik 2021era ikasle etorkinen matrikula kopurua ia laukoiztu egin da; 2003an matrikulazio osoaren %3,02 zen portzentajea, eta 2021ean matrikulazio osoaren %9,7a dugu.
- Bertoko jatorria duten familien jaiotza tasa zerbait igo da azken urteetan, baina neurri handi batean ikasle etorkinei zaie zor ikasletoaren kopuru orokorrak gora egitea; 2003-2021 epean 625 ikasle gehiago dira matrikulazio orokorrean eta, horietatik, ikasle etorkinak gehiago direnak 290 (igoeraren %46a).

## Ikaslego etorkina zentroka-Bilakaera 2003-2021



	Allende Salazar	Barrutia	Barrutialde	Gernika BHI	Mertzede	San Fidel	Seber Altube
2003-2004	17	0	1	19	52	12	2
2005-2006	20	4	2	20	59	23	7
2007-2008	37	6	7	20	106	36	16
2009/2010	43	3	13	19	105	45	17
2011-2012	60	20	13	26	141	46	18
2014-2015	51	17	7	25	140	60	18
2016-2017	59	5	8	33	137	68	21
2017-2018	62	10	14	27	158	62	13
2018-2019	69	19	18	32	160	80	11
2019-2020	70	9	19	30	153	65	20
2020-2021	70	24	17	35	161	60	26

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Bizkaia) eta Gizarte Zerbitzuetako Manakomunitatea

- Ikasle etorkinen matrikulak, Gernika-Lumon eta 2012-2013 ikasturtean, %61,51 zentro kontzertatuetan eta %38,49 zentro publikoetan; 2016-2017 ikasturtean %70 kontzertatuetan eta gainerakoak publikoetan; 2020-2021 ikasturtean %63 kontzertatuetan eta gainerako publikoetan.
- Mertzede Ikastetxea da etorkinak pilatuta dauden ikastetxea. Urteak pasatu ahala, pilaketa horri galga jarri zaiola esan dezakegu (2003an %52a zegoen matrikulatuta Mertzeden; 2016an ikasle etorkinen matrikulen %42a; eta 2021ean %41a), zentro guztien artean oreka bilatu nahian.
- Baina kezkatzeko beste fenomeno bat ari da gertatzen, Mertzede ikastetxean bertan ikaslego etorkinaren kopurua mantendu arren, portzentajea areagotu egin delako; 2003an ikasle goaren %46a zen etorkina zentro horretan eta 2021ean %62a da.